

Nafarroan industria jasangarria eta kalitateko enplegua eskaintzen duena behar dugu

ELAren proposamenak

2025eko otsaila



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

1. Sarrera

Nafarroa da industriak pisu handiena duen Estatu osoko erkidegoa (lau langiletik batek dihardu sektore honetan). Alabaina, eredu produktibo nafarrak baditu bere arazo eta gabeziak:

- Nafarroako Gobernuak ez du industria-politikarik garatzen.
- Atzerriko multinazionalen gehiegizko menpekotasuna eta deslokalizazioaren mehatxu etengabea.
- Aldaketa teknologiko handiak izango dituzten sektoreen pisu erlatibo handia, esaterako automozioarena.
- Energia eta material finituen gehiegizko kontsumoa.
- Lehiatzeko ereduaren oinarria prekarizazioan datza.
- Enpresa azpikontratatueta lanean ari den jendearentzako subrogazio bermerik ez dago.

2. Enplegua suntsitzearen arduradunak

2.1. Enpresen interesak

Nafarroan multinazional eta enpresa ugari langileak kaleratu nahi dituzte, edota hauen baldintzak okertu. BSHren itxiera mehatxua, Gamesako EEEda, Sunsundegui eta Nano Automotiveren egoera, Antolín eta Plásticos Brelloren itxiera... hauengatik guztiengatik makina bat lanpostu jokoan dago.

Erabakiok zeharo errefusatzeko ditugu; errudun bat badago horien atzean: enpresen interesak.

Gainera, beste enpresa asko ziurgabetasunaz baliatzen ari dira lan-baldintzak okertzen saiatzeko. Argi izan behar dugu ez gaudela 2010eko krisiaren antzeko egoera batean: uneotan enpresa askoren etekinak markak hausten ari dira (BSHk berak azken 5 urteetan 263 milioi irabazi ditu).

2.2. Alderdi politikoek sustatutako lan-erreformak

2010eko Zapateroren eta 2012ko Rajoyren erreformen ondorioz lan-baldintzak zeharo okertu ziren. Halaber, 2022an PSOEk eta Unidas Podemosek beste erreforma bat ezarri zuten, UGT

eta CCOOen sostenguearekin, eta aurreko erreformetan izandako murrizketak finkatuta geratu ziren:

- Enpresek kaleratzeak egiteko zituzten aukerak gehitu ziren, baita etekinak izanagatik ere.
- Kaleratze kolektiboen gaineko kontrol administratiboa kendu zen.
- Kaleratzea merkatu egin zen, kalteordaina 45 egunekoa izan ordez 33koa baita orain.
- Tramitazio-soldatak kendu ziren.
- Enpresek hitzarmenak ez aplikatzeko aukera dute.
- Fogasaren estalduraren murrizketa, LGSaren bikoitza baino ez du ordaintzen, eta gehienez 120 eguneko soldata.

Azken lan-erreformak ez zituen aurrekoen kalteak bere onera ekarri; areago, besteak beste patronalak, Ciudadanosek eta UPNk ere babestu baitzuten.

Gaur Nafarroako alderdi politikoez elkartasun keinuak egiten dizkiete lanpostua arriskuan duten langileei. Zenbait alderdi manifestazioetan agertzen dira ere. Haatik, ezin ahaztu ehundaka langile nafarren egoera ahula alderdi horietzek bozkatutako lan-erreformen ondorio dela. Nafarroako eta Espainiako Gobernua sostengatzen ari diren alderdi batzuek diote progresistak direla; bada, euren esku dago pairatzen ari garen abusu egoerak galarazteko legeak egitea.

3. Lanpostuen defentsa

ELAren iritziz lehentasuna lanpostuen defentsa izan behar da. Gure konpromisoa da lan egitea enpresek horrela jokatzeko dutenean erantzunik tinkoena aktibatzeke. Edozein kaleratze edo itxierari aurre egingo dio ELAk.

Beharrezkoa da eragindako enpresetako langileak ez ezik Nafarroako gizarte guztia ere mobilizatzeko; hala ere, enpresa horietan borroka bultzatu behar da, eta behar izanez gero baita greba ere.

Halaber, hainbat negoziazio prozesutan Nafarroako Gobernua saiatu da langile-batzordeen eginkizuna bereganatzen, eta negoziazio hori diskrezioz egiteko eskatzen du. Jokabide honen helburua da Gobernuak ez dezala presio handirik izan kaleratzeen kontra egin beharreko guztia egiteko. Areago, enpresetako zuzendaritzarentzat errazagoa izan ohi da Gobernuarekin negoziatzea langileen ordezkariekin baino. Ezkutukeria nagusi den eredu hau ez dugu onartzen; honen eraginez langileak beren etorkizunari buruz aktore pasibo bihurtzen dira.

4. Nafarroako Gobernuak industria-politika anbiziotsua egin behar du

4.1. Nafarroako Gobernuak industria-politika bakarra du: enpresek gero eta zerga gutxiago ordaintzea

ELAk kezka handiz ikusten du Nafarroako Gobernuak ez daukala industria-politikarik. Orain arte egin duen proposamen bakarra, enpresek gero eta zerga gutxiago ordaintzea; horregatik esan du Chivite Lehendakariak "6 enpresetatik 5ek Nafarroan zerga gutxiago ordaintzen dute Estatuko beste lekuetan baino".

4.2. Trantsizioa eredu industrial jasagarri baterantz gidatu

Nafar ekonomiaren oinarria produkzio industrial eta garraioa da; honek inpaktu ekologiko handia du. Erabiltzen diren material gehienak ez dira berriztagarriak, eta zenbait gai estrategiko eskuratzea gero eta zailagoa gertatzen da.

ELAren aburuz ezinbestekoa da industria-politika berritzaile bat sustatzea, trantsizio bat bideratzeko eredu industrial berri baterantz; hau gizartearen beharrei, genero berdintasunari eta ingurumen jasagarriari egokitu behar zaie.

Trantsizio ekosozialak jendearen zaintzarekin eta ingurumen jasagarriarekin lotutako jarduerak sustatu behar ditu. Hain zuzen ere, kaleratze mehatxupear dauden langile gehienak jarduera horietakoak dira (energia eolikoa, bidaiarien garraioa, etxetresna elektrikoak...); honek eskatzen du Nafarroako Gobernuak enpleguaren alde zuzenean esku har dezan.

4.3. Nafar industria eraldatzeko funts bat sortu, sektore estrategikoetan esku- hartze publikoa eta banku publikoaren sorrera

2021. urtean ELA sindikatuak Nafarroako Gobernuari galdegin zion trantsizio hori gidatzeko funts bat sor zezala. Honekin batera beharrezkoa da sektore estrategikoen esku-hartze publikoa eta banku publiko bat sotzea industria-politika hau sustatzeko.

5. Industria Legeak langileen onerako edukirik ez du izango

Nafarroako Gobernuak 2025ean Industria lege bat aurrera atera nahi du Nafarroako Parlamentuan; asmo horrekin foro bat eratu zuen; honetara deitu zituen sindikatuak eta patronala.

ELAn hasieratik bagenekien Industria Legearen xedea zela enpresen pribilegioak sendotzea; foroan parte hartu ez zuen sindikatu bakarra izan ginen. Duela aste batzuk Nafarroako Gobernuak foro hartako ondorioak eman ditu ezagutzera, baina soilik patronalaren proposamenak bildu ditu; Nafarroako industrian lan egiten dutenen baldintzak hobetzeko proposamen oro baztertu egin dute.

Horregatik, gure ustez erabaki zuzena izan zen foro hutsal haretan parte ez hartzea; haren helburu bakarra zen Gobernuak esan ahal izatea legea egiteko prozesua partehartzailea izan dela.

6. Nafarroan industria jasangarria eta kalitateko enplegua duena izateko proposamenak

- Nafarroako Gobernuak funts bat sortu behar du industriaren eraldaketa sustatzeko.
- Industria-politikari bultzada emateko banku publiko bat sortu.
- Sektore estrategikoen esku-hartze publikoa eta energia-sektorearen publikakazioa; energia benetan berriztagarriak garatu behar dira, eta egungo energia fosilen produkzioa geldiarazi.
- Lan-erreforma indargabetu, besteak beste etekinak dituzten enpresen itxiera galarazteko eta espediente kolektiboak berriro Administrazioaren kontrolpean jartzeko.
- Gutxieneko Soldataren zenbatekoa 14 pagako 1.795 euro gordinetan finkatzea, hau da, 2024ko *per capita* BPGaren % 65ean.
- Lanaldia 35 orduraino murriztea; hurrengo urratsa 30 orduko astea izango da.
- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala desagerrarazi.
- Nafar langileen eskubidea bermatu euren lan-baldintzak erabaki ahal ditzaten; negozioak kolektiboaren estatalizazioa eragotzi; hau, besteak beste, industria kimikoan eta kontserba begetalen sektorean pairatzen da.

- Enpresa guztietan bermatu afiliazio sindikalaren baitako diskriminaziorik ez dela gertatuko kontratatzerakoan.
- Azpikontratetan lan egiten duen jendearen subrogazio eskubidea bermatu.
- Batez ere emakumeei inposatzen zaien lanaldi partziala desagerrarazi.
- Enpresak derrigortu lanpostu estrukturalak langile propioekin osatzera; Aldi Baterako Kontratatzioko enpresen bidezko kontratuak ahalik gehien mugatu.
- Aldizkako finkoen kontratua ikuskatu eta erabiltzeko aukera zeharo murriztu; izan ere, behinbehinekotasuna ezkutatzeke baliatzen baita, enpresei erabateko malgutasuna ematen dielarik.
- Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua indargabetu eta Enplegu Plana bertan behera utzi.
- Lan-zentro errentagarriak ixteko eta deslokalizatzeko aukera debekatu.
- Enpresarentzat derrigorrezkoa izan behar da deslokalizatuz gero jaso dituen dirulaguntzak itzultzea.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA